

Zumarragan ipuin kontaketa saioak hasi dira irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko

Bihar Maite Arresek eskainitako saioa izango da eta azaroaren 2an eta eta 10ean, Iker Diezena

Zumarraga. Udal liburutegiak ipuin kontaketa saioak antolatu ditu, haurren artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko kanpainaren baitan.

Lehen saioa atzo izan zen eta hurrengoak bihar, azaroaren 2an eta azaroaren 10ean izango dira. Ekimen honetan Urretxuko eta Zumarragako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak ari dira parte hartzen.

Bihar, 9.30etik 11.30era, Maite Arrese ipuin kontalariak Marilurrek 5.722.630 ipuin dakizki emanaldia eskainiko die Lehen Hezkuntzako 1. mailako haurrei.

Azaroko saioak, berriz, 9.30etik 11.45era izango dira eta 2. mailako haurrek parte hartuko dute. Iker Diezek Kontu-kontari, kontu-kantari ikuskizuna eskainiko du. Diazek musika eta abesti originalak erabiltzen ditu bere saioak janzteko. Zumarragan kontatuko dituen ipuinetako abestiak Carlos Fregtman musikari, idazle eta psikoterapeuta ezagunak idatzitakoak dira.
>a.z.